Halaber, euskara ofiziala den eremuko erakunde ofizialek nahiz administrazio publikoek igorritako dokumentazioa gatzelania hutsean jasoko balitz, Udalak agiri horiek itzuli eta euskaraz idatzita bidaltzeko prozedura jarriko du abian.

trabajadores y las trabajadoras acrediten el perfil. Si en ese plazo no se acredita, la empresa responsable se comprometerá a sustituir a esa persona por otra que acredite el perfil, capacidad lingüística solicitada por el ayuntamiento”.

7. Los trabajadores y las trabajadoras de la empresa adjudicataria priorizarán el euskera en la comunicación oral que mantengan con la ciudadanía y continuarán en la lengua que escoja el ciudadano o la ciudadana. Y los documentos, tarjetas, demás escritos que dejen en manos de la ciudadanía estarán en euskara o por lo menos, en bilingüe.

Será compromiso de la mesa de contratación hacer seguimiento de las obligaciones lingüísticas, en colaboración con el área de Euskera y será razón suficiente para terminar con el contrato, la continua falta de obligaciones lingüísticas.

Artículo 36: En los servicios contratados anteriormente, tres meses antes de la renovación del contrato se reformarán las cláusulas incluyendo los criterios lingüísticos establecidos en dichas ordenanzas.

2.2.3. Relaciones con instituciones públicas

Artículo 37: El Ayuntamiento o sus órganos dependientes enviará la documentación en ambas lenguas oficiales a todas las administraciones públicas y organismos oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca, Comunidad Foral de Navarra y demás territorios del euskera.

Asimismo, si la documentación procedente de entidades oficiales y administraciones públicas de zonas donde el euskera es lengua oficial se recibiese únicamente en castellano, el Ayuntamiento podrá devolver a origen dicha documentación.

2.2.4. Oharrak, argitalpenak eta komunikabideekiko harremanak

38. *artikulua*: Udalaren bandoak, araudiak, ordenantzak, edozein motatako ebazpen eta erabakiak, iragarkiak eta, oro har, jendaurreko argitalpen guztiak euskaraz edo ele bietan argitaratuko dira. Bestalde, Udalaren web orri, aldizkari, berripaper, gida eta antzeko argitalpenetan euskararen erabilera bermatu eta lehenetsi beharko da.

2.2.5. Jarduera publikoa

39. *artikulua*: Udalak antolatutako kirol, kultur eta bestelako ikastaroetan euskara lehenetsiko da eta eskaeren arabera, ikastaroa gazteleraz be eman daiteke. Irakaslea/begiralea elebiduna izango da. Udalak edo bere menpe dauden organoek antolatzen edo sustatzen dituzten ekitaldi publiko guztietan euskararen presentzia bermatu beharko da, bai ekitaldian bertan bai publizitatean, aurkezpenean, agurrean eta abarretan. Horretarako kontuan hartuko dira ekitaldiaren helburuak, gaiak, eragin sozialak, hartzaile edo entzule potentzialak, hizlari edo irakasleak, eta erabili edo banatuko den materiala. Horren jarraipena aholku batzordeak, euskara zerbitzuak egingo du.

2.2.6. Erregistroa

40. *artikulua*: Udalera sartzen eta Udaletik ateratzen diren dokumentuak idatzita dauden hizkuntza berean inskribatu behar dira Udal Erregistroan. Dokumentua euskaraz eta gaztelaniaz balego, euskaraz inskribatuko da.

41. *artikulua*: Udal Erregistroak luzatzen dituen ziurtagiriak eta dokumentazio guztia euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, euskarari lehentasuna emanaz. Ziurtagiriak euskara hutsean beteko dira erroldan eskaera hala egin dutenen kasuan.

2.2.4. Avisos, publicaciones y relaciones con los medios de comunicación

Artículo 38: los bandos, normativas, ordenanzas, resoluciones de todo tipo, acuerdos, anuncios municipales y, en general, todas las comunicaciones públicas, se difundirán en ambas lenguas oficiales. Por otra parte, se garantizará y priorizará el uso del euskera en páginas web, revistas, hojas informativas, guías y publicaciones similares realizadas por el Ayuntamiento.

2.2.5. Actividad pública

Artículo 39: Se priorizará el uso del euskera en todos los cursos/talleres deportivos, culturales y de otra índole organizados por el ayuntamiento y dependiendo de las solicitudes, el curso/taller también se ofrecerá en castellano. El monitor/profesorado será bilingüe. Se garantizará la presencia del euskera en todos los actos públicos organizados o promovidos por el Ayuntamiento o por sus órganos dependientes, tanto en los actos mismos como en la publicidad, presentación, despedida, etc. Para ello se tendrán en cuenta los objetivos, temas, influencia social, personas destinatarias o audiencia potencial y ponentes o personas que impartan los actos, así como los materiales que se usen o se distribuyan. Su seguimiento lo realizará la comisión asesora y el servicio de euskera

2.2.6. Registro

Artículo 40: Todos los documentos que entren y salgan en el Ayuntamiento quedarán inscritos en el Registro Municipal en el mismo idioma en el que estén escritos. Si el documento estuviera en euskera y castellano, se inscribirán en euskera.

Artículo 41: Todos los certificados y demás documentación expedidos por el Registro Municipal estarán escritos en euskera y castellano, dando prioridad al euskera. Los certificados se rellenarán únicamente en euskera en el caso en el que la o el ciudadano así lo haya expresado en el censo.

2.3. EUSKARAREN ERABILERA UDALERRIAN

2.3.1. Euskararen hedapen-bideak

42. *artikulua:* Berrizko Udalak ahalegina egingo du ahalik eta herritar gehienek euskara ikas dezaten eta euskararen presentzia eta erabilera gizarte-bizitzaren esparru guztietan areagotu dadin.

2.3.2. Udal izendegi ofiziala (toponimia)

43. *artikulua:* 10/1982 Legeko 10. artikulua arabera, toki-izenak ezartzerakoan jatorrizko izen euskaldun, erromantzezko edo gaztelaniazkoa gorde behar da.

44. *artikulua:* Deitura ofizialei buruz desadostasunik egongo balitz, toki-korporazioak Euskaltzaindiari argibideak eskatu eta erabakirik egokiena hartuko luke.

2.3.3. Hizkuntza-paisaia

45. *artikulua:* Kaleen eta auzoen izenak ageri diren plakak, trafiko-seinaleak, bide eta zeharbideen adierazgarriak eta oro har herri-bideko iragarpen guztiak euskaraz izango dira eta ulergaitza denean, bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira baina euskarazkoa lehenengo lekuan jarriko da eta bai tamainagatik, tokiagatik edo azpimarratuta egoteagatik, lehenetsuneko trataera izango du.

46. *artikulua:* Berrizko Udalak neurri egokiak hartuko ditu garraio publikoetako errotulu, abisu, inprimaki, publizitate eta adierazpen guztietan erabiltzaileen hizkuntza eskubideak errespetarazteko.

2.3. USO DEL EUSKERA EN EL MUNICIPIO

2.3.1. Medios para la difusión del euskera

Artículo 42: El Ayuntamiento de Berriz procurará que el mayor número posible de población aprenda euskera y que la presencia y el uso del euskera se incrementen en todos los ámbitos de la vida social.

2.3.2. Nomenclatura municipal oficial (toponimia)

Artículo 43: De acuerdo con el artículo 10 Ley 10/1982 al establecer los topónimos debe respetarse la originalidad euskaldun, romance o castellana con la grafía académica propia de cada lengua.

Artículo 44: Si hubiera duda o desacuerdo en torno a alguna denominación oficial de origen euskaldun, la corporación local recurrirá a Euskaltzaindia para solicitar información y adoptaría la decisión más adecuada.

2.3.3. Paisaje lingüístico

Artículo 45: Las señales e indicaciones de tráfico instaladas en la vía pública como nombres de calles y barrios, estarán redactados en euskera siempre que no dificulten la comprensión y si es así, aparecerán en bilingüe. Se priorizará la presencia del euskera teniendo en cuenta tamaño, ubicación y remarcación.

Artículo 46: El Ayuntamiento de Berriz tomará las medidas adecuadas para hacer respetar los derechos lingüísticos de las y los usuarios en todos los rótulos, avisos, impresos, publicidad e indicativos de transporte público.

47. artikulua: Berrizko Udalak dituen bulego, egoitza zein utzitako lokal guztietako kanpoaldeko nahiz barrualdeko errotulazioa, oro har, euskaraz eta gaztelaniaz agertuko dira. Euskarazkoa lehenengo lekuan jarriko da eta nabarmenduta. Ulergarria baldin bada, euskara hutsean idatziko da, piktograma batekin.

48. artikulua: Errotuluetako testua euskara hutsean idatziko da ondoko kasuetan, betiere euskararik ez dakiten herritarren hizkuntza eskubideak urratu gabe;

- a) Errotuluetako hitzek euskaraz eta gaztelaraz antzeko grafia dutenean.
- b) Mezuak piktograma batez lagundurik direnean eta haren bitartez ulergarriak direnean.
- c) Bulegoen barne biraketa euskeraz eta gaztelaraz dagoen direktorioari lotuta dagoanean

49. artikulua: Udal administrazioak bitartekoak jarriko ditu udalerriko bulego, enpresa, denda eta saltokietako errotuluetan zein hizkuntza paisaia osatzen duten beste elementuetan euskararen presentzia areagotu dadin.

50. artikulua: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arabera, diru-laguntzak emango zaizkie Berrizko merkatariari, enpresei errotulazioan (errotuluak, produktuen izen eta prezioen karteltxoak, toldoak, ibilgailuen errotulazioa... euskararen erabilera bultzatzeko. Errotulazioa euskara hutsean edo euskaraz eta gaztelaniaz jarri behar dira. Dirulaguntza izateko behar bezala justifikatuko da faktura bidez.

51. artikulua: Dirulaguntzak honako kasuetan emango dira;

- a) Euskara hutsean idatzita dagoen errotulu bat jarritakoan.
- b) Aurreko araua, kartel bakoitzari aplikatuko zaio.

Artículo 47: La rotulación tanto exterior como interior de los despachos y estancias propiedad del Ayuntamiento de Berriz, así como de sus locales cedidos, aparecerán por regla general en euskera y castellano. El texto en euskera se escribirá en primer lugar y remarcado y si el mensaje es claro, exclusivamente en euskera y acompañado de pictograma.

Artículo 48: El texto del rótulo aparecerá solamente escrito en euskera en los siguientes casos, siempre sin quebrantar los derechos lingüísticos de la población que no conoce el euskera:

- a) Cuando las palabras del rótulo presentan una grafía similar en euskera y en castellano.
- b) Cuando los mensajes aparecen acompañados por un pictograma que ayude en su comprensión.
- c) Cuando la rotación interior de los despachos va asociado a un directorio general en euskera y castellano,

Artículo 49: La administración municipal pondrá los medios necesarios para incrementar la presencia del euskera en los rótulos de oficinas, empresas, tiendas, comercios y demás elementos que conforman el paisaje lingüístico.

Artículo 50: Se concederán subvenciones específicamente a comerciantes, empresas de Berriz para que incrementen la presencia del euskera en sus rotulaciones (rótulos, cartelillos con los nombres y los precios de los productos, toldos, letreros de los vehículos...). Las rotulaciones se realizarán en euskera o en euskera y en castellano. La solicitud de subvención deberá estar convenientemente justificada con la factura correspondiente de acuerdo a la ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Artículo 51: Las ayudas se darán en los siguientes casos:

- a) A quien ponga un rótulo escrito únicamente en euskera.
- b) Se aplicará a cada uno de los carteles colocados.

Beraz, denda batek errotulu bat baino gehiago jarri dezake, bere fatxadak hala eskatzen badu.

Por tanto, una tienda podrá poner más de un rótulo, si su fachada así lo requiere.

c) Ez Ezin izango dute dirulaguntzarik lortu bakarrik izena edo abizena, edota izen-abizenak dituzten errotuluek. du dirulaguntzarik jasoko txarto idatzita edo oker gramatikarik duen errotulurik. Euskara Batzordea, ordenantza honetan jasota ez dauden kasuetan erabakiak hartzeko gai izango da. Kasu berezietan, Tokiko Gobernu Batzarrak dirulaguntza proposamen zehatzak aztertu eta erabakiko du.

c) No podrán acogerse a la ayuda descrita los rótulos que contengan únicamente el nombre o el apellido, o el nombre y el apellido. Tampoco se subvencionarán los rótulos que estén escritos incorrectamente o contengan errores gramaticales. La comisión de Euskera tendrá la potestad para decidir en todos aquellos casos que no se encuentren recogidos para decidir en todos aquellos casos que no se encuentren recogidos por la presente ordenanza. En casos especiales, el Pleno de Gobierno Municipal analizará y decidirá sobre propuestas de subvención.

d) Izaera ez ofizialeko entitateek bakarrik jaso ahal izango dituzte diru-laguntza hauek.

d) Estas subvenciones sólo las podrán recibir las entidades no oficiales.

52. artikulua: Udal Euskara Zerbitzuaren bitartez, errotuluen itzulpengintza eta aholkularitza zerbitzua eskainiko da doan; eta horren berri emango die interesa dutenei. Itzulpengintza zerbitzu publikoaren gizarte erabilera bultzatzeko, eta herritarrentzat interesa duten idatziak euskaratzeari dagokionez, eskaintza bera luzatuko zaie profesional, merkatari, dendari, enpresa eta gainerako erakundeei. Beti ere itzulpenak egingo dira erakundeetan, dendan edo enpresan bertan euskaraz idazteko gaitasuna duen inor ez dagoela ziurtatu ondoren. Itzulpenen segimendua egingo du Euskara Zerbitzuak.

Artículo 52: Por medio del Servicio Municipal de Euskera, se ofrecerá servicio gratuito de traducción y asesoramiento de los rótulos, del cual se informará a toda persona que esté interesada. Para impulsar el uso social del servicio público de traducción y en lo que concierne a la traducción al euskera de los escritos que puedan resultar interesantes para la población, se realizará la misma oferta a profesionales, comercios, tiendas, empresas y demás entidades. Siempre y cuando se verifique que en la entidad, tienda o empresa no hay nadie con capacidad para hacerlo en euskera. El Servicio de Euskera realizará el seguimiento de las traducciones.

53. artikulua: Errotuluen inguruan aipatutako dirulaguntza jasotzeko, eskaria Udaleko Erregistroan aurkeztu behar da eta informazioa aldiz, Udaleko Hirigintza Zerbitzuan jaso daiteke. Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Artículo 53: La documentación para recibir subvención de rótulos se presentará en el Registro municipal y se podrá recoger información en el Departamento de Urbanismo del Ayuntamiento. La documentación requerida es la siguiente:

- Errotuluen testua eta argazkia.
- Errotuluaren gastuari buruzko faktura.
- Gizarte Segurantzarekin zorrik ez dela egiaztatzen duen agiria.
- Lurraldeko Foru Ogasunarekin zorrik ez dela egiaztatzen duen agiria.

- Texto del rótulo y foto.
- Factura del gasto del rótulo.
- Justificante que acredite estar al día en la Seguridad Social.
- Justificante que acredite estar al día en Hacienda Foral.

- Euskara hutsean idatzitako errotuloa jartzen duenari, errotulorearen zenbatekoaren %50a ordainduko zaio, gehienez 360€.
- Euskaraz eta erdaraz, hau da hizkuntza bietan, idatzita dagoen errotulu bat jartzen duenari, horren %30 gehienez 180 euro abonatuko zaio, beti eta elebitasun pizgarriaren irizpidea erabiltzen badu, hau da, euskarazko testuak, bai tamainagatik, tokiagatik edo azpimarratuta egoteagatik, lehentasunezko trataera badu
- Establezimendua irekitzeko emandako informazioarekin batera, artikulua honetan xedatutakoaren dirulaguntzen berri emango zaie interesatuei, baita beren errotuluak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz jar ditzaten gomendioa egin ere.
- Por los rótulos escritos únicamente en euskera, se pagará el 50% del rótulo, máximo 360 €
- En los casos de los rótulos escritos en bilingüe, se pagará el 30%, un máximo de 180 €, siempre que tenga en cuenta la discriminación positiva del euskera, esto es, tamaño, posición y/o subrayado del rótulo en euskera.
- Con la información sobre licencia de apertura del establecimiento, se comentará a la persona interesada la subvención de rótulos y recomendaciones para la colocación del rótulo en euskera o en bilingüe.

2.3.4. Jarduera publikoa

54. artikulua: Herritarrek edo herriko elkarte/erakundeek antolatzen edo sustatzen dituzten ekitaldi publiko guztietan euskararen presentzia bermatu beharko da, bai ekitaldian bertan bai publizitatean, aurkezpenean, agurrean eta abarretan, Udalaren agerpena edo partehartzea eskatzen bada. Horretarako kontuan hartuko dira ekitaldiaren helburuak, gaiak, eragin soziala, hartzaile edo entzule potentzialak, hizlari edo irakasleak eta erabili edo banatuko den materiala.

55. artikulua: Edozein pertsonak, taldek edo erakundeek Udalak diruz edo hitzarmen bidez lagundutako ekitaldi publikoak antolatzeko, euskararen presentzia bermatuko dute. Udal Euskara Zerbitzuak doan eskainiko die itzulpengintza eta aholkularitza zerbitzua, bereziki euskara erabilera eta presentzia areagotzeko hitzarmena sinatuta duten elkarte/dendari/enpresei.

1. Kultur, Kirol eta aisi elkartei dirulaguntzak ematerakoan hizkuntzaren irizpidea ere kontuan hartuko da. Berrizko udalarengandik dirulaguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek, bere jardun subentzionaletan argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz edo

2.3.4. Actividad pública

Artículo 54: Se garantizará la presencia del euskera en los actos públicos organizados o promovidos por la ciudadanía o asociaciones/entidades, tanto en los actos mismos como en la publicidad, presentación, despedida siempre que se solicite presencia o participación municipal. Para ello se tendrán en cuenta los objetivos, temas, influencia social, personas destinatarias o audiencia potencial y ponentes o personas que impartan los actos así como los materiales que se usen o se distribuyan.

Artículo 55: Cualquier persona, grupo o entidad que organice actos públicos subvencionados por el Ayuntamiento deberán garantizar la presencia del euskera en dichos actos y el Servicio municipal de Euskera ofrecerá gratuitamente los servicios de traducción y asesoramiento.

1. Se tendrá en cuenta el criterio lingüístico a la hora de dar subvenciones a grupos culturales, deportivos y de tiempo libre. Las asociaciones, entidades, personas físicas como entidades jurídicas que publiquen escritos, anuncios, y demás lo harán y lo darán a conocer en euskera o euskera y castellano siempre que sean actividades subvencionadas por el

euskaraz eta gaztelaniaz idatzi eta ezagutzera eman beharko dituzte. Dirulaguntzak eskuratzeko baldintzetariko bat izango da guzti hori, dirulaguntza hartzaileek, dirulaguntza jasoko badute, derrigorrez bete beharko dutelarik.

2. Udal instalazioak eta materialak erabili ahal izateko ere aurreko puntuan aipatutako baldintzak bete beharko dira. Udalak beraz, pilotalekua, hesiak, oholtzak, futbolzelai eta bestelako udal instalazio eta material erabiltzeko baimena ematerakoan, hizkuntza baldintza horren berri emango die interesatuei eta fidantza itzuli baino lehen egin ohi diren egiaztapenatariko bat izango da hizkuntzari buruzkoa ere.
3. Herriko festetako barraketako idatzi, iragarki eta txartelak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz emango dira ezagutzera eta beraz, barrakak muntatzeko baimena emateko baldintzen artean hori ere azalduko da eta fidantza itzuli aurretik baldintza hori bete den ala ez egiaztatu beharko delarik.

56. artikulua: Udalak, bere menpeko organoek, herriko elkarteek ume eta gazteentzat antolatzen dituzten gizarte, kultur, kirol, jai edo jolas ekitaldietan euskara izango da hizkuntza arrunta eta lehentasunezkoa.

57. artikulua: Azaroaren 24ko Euskararen Erabilera Arauzkotzeko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera, udal administrazioari dagokio neurri aproposak hartzea udalerriko gizarte, eremu guztietan euskara erabilia izan dadin. Ondorioz, Berrizko Udalak, aurreko artikuluan aipatutako jarduerak bultzatzeaz gainera, akordio edo konpromiso konkretuak hitzartuko ditu gizarte, kultur, kirol, aisia, erlijio eta merkataritza alorreko erakunde eta taldeekin, euskararen presentzia eta erabilera erakundeetan bertan nahiz udalerrien bizitza sozialean suspertzeko asmoz.

58. artikulua: Udalaren diru-laguntza jasotzen duten gizarte, kultur, kirol, erlijio, aisia edo merkataritza alorreko erakundeek euskara erabili beharko dute bai euren publizitatean eta herriari zuzentzen dizkieten berriemateetan baita antolatzen dituzten ekitaldi guztietan ere, eta hala jakinaraziko die diru-laguntza onartzen eta ematen dien udal organoak.

ayuntamiento. Será requisito indispensable para recibir la subvención y las personas solicitantes lo tendrán que cumplir.

2. Se cumplirán las mismas condiciones a la hora de solicitar instalaciones municipales y material. El ayuntamiento al conceder permiso para el uso del frontón, vallas, tablados, campo de fútbol y demás instalaciones les informará a las personas interesadas y antes de devolver la fianza unos de los requisitos exigidos será el del euskera.
3. Los escritos, carteles de las recintos feriales, barracas de fiestas irán en euskera o en euskara y castellano y por lo tanto al conceder permiso para la instalación de barracas se informará de ese requisito y antes de devolver la fianza, se comprobará si han cumplido o no con esa condición.

Artículo 56: El euskera será la lengua corriente y prioritaria en los actos sociales, culturales, deportivos, festivos y lúdicos organizados por el Ayuntamiento o por sus órganos dependientes para infancia y juventud.

Artículo 57: Según la ley 10/1982, de 24 de noviembre, sobre la normalización del uso del euskera, corresponde a la administración municipal tomar las medidas adecuadas para que el euskera sea utilizado en todos los ámbitos municipales. En consecuencia, el Ayuntamiento de Berriz, además de organizar las actividades citadas en el artículo anterior, convendrá acuerdos y compromisos con los grupos y organismos sociales, culturales, deportivos, religiosos, de tiempo libre y comerciales, para estimular la presencia y el uso del euskera tanto en los mismos organismos como en la vida social del municipio.

Artículo 58: Los organismos sociales, culturales, religiosos, de tiempo libre o comerciales que reciban subvenciones municipales deberán utilizar el euskera para su publicidad y para las notificaciones dirigidas a la población como en todos los actos que organicen, y así se lo harán saber los órganos municipales que les conceda y les entregue la subvención.

59. artikulua: Euskararen berreskurapen eta sustatzearen alde lan egiten duten erakunde eta talde ez ofizialek Berrizko gizarte-bizitzan euskara zabaltzeko eta normalizatzeko duten berebiziko garrantzia ikusita, Udalak lagundu egingo die jarduerak egiteko behar dituzten azpiegiturak utziz eta egitarau edo ekitaldi didaktiko-kulturalak diruz osorik edo zati batez lagunduz.

2.3.5. Irakaskuntza

60. artikulua: Berrizko udalerrian hizkuntzaren normalizazioa lortu asmoz, Berrizko Udalak elebitasunaren alde bereziki D eredu bermatuko du; irakaskuntza eredu honen aldeko informazio kanpainak eginez.

1. Haur jaio berriak dituzten gurasoei sistematikoki zuzenduko zaie Udala Haurreskola zerbitzuaren berri eman eta zerbitzu horrek, euskara ikasteari dagokionean, bere haurrentzat dituen alderdi onak jakinaraziz.

61. artikulua: Udalak bitartekoak jarriko ditu Berrizko ikastetxeetako euskararen erabilera areagotzeko planak diseinatzen eta ezartzen laguntzeko. Horrez gain, akordio edo konpromiso konkretuak ere hitzartuko ditu ikastetxeetako zuzendaritza taldeekin, Hizkuntza Normalkuntza taldeekin, guraso elkarteekin eta beharrezko ikusten duen herriko gizarte-erakundeekin, ikasgela barruan eta kanpoan (eskolaz kanpoko jardueretan) euskararen erabilera sustatzeko.

2.3.6. Helduen euskalduntze eta alfabetatzea

62. artikulua: Berrizko Udalak parte hartuko du, ahal duen neurrian, helduak euskara ikastera edo hobetzera bultzatzen duten kanpainetan.

63. artikulua: euskara ikasi nahi duen berriztar helduei, euskaltegiko matrikula ordaindu ahal izateko, Udalak laguntza ekonomikoak emango dizkie

Artículo 59: Habida cuenta de la gran importancia que tienen para la difusión y normalización del euskera en la vida social de Berriz las organizaciones y grupos no oficiales que trabajan en la recuperación y promoción del euskera, el Ayuntamiento colaborará para desarrollar sus actividades y subvencionándoles, total o parcialmente, sus programas o actos didáctico-culturales.

2.3.5. Enseñanza obligatoria

Artículo 60: Sería absolutamente impensable la normalización lingüística de nuestro municipio sin contar con que las nuevas generaciones sean bilingües. Por esa razón, el Ayuntamiento de Berriz fomentará el bilingüismo e impulsará campañas de información a favor de los modelos educativos, especialmente el modelo D.

1. El ayuntamiento informará del Haurreskola a los nuevos padres y madres comentando las ventajas positivas de ese servicio integro en euskera en la educación de sus hijos e hijas.

Artículo 61: El Ayuntamiento pondrá los medios necesarios para ayudar a los centros educativos de Berriz a diseñar e implementar planes para incrementar el uso del euskera. Además de eso, convendrá acuerdos y compromisos concretos con los equipos directivos de los centros educativos, asociaciones de padres y madres y demás organismos sociales del pueblo que considere conveniente, al objeto de promover el uso del euskera en los comedores y en las actividades extraescolares.

2.3.6. Euskaldunización y alfabetización de personas adultas

Artículo 62: el Ayuntamiento de Berriz participará, en la medida de sus posibilidades, en las campañas que se realicen para inducir a estas personas al aprendizaje o a la mejora del euskera.

Artículo 63: Subvenciones para el aprendizaje del euskera según la ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de subvenciones: el Ayuntamiento ayudará

dirulaguntzen bidez. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera.

64. artikulua: Diru-laguntza honen onuradunak Berrizko herritarrak izango dira, dagozkien agirien bidez, Euskara Zerbitzuan euskarazko ikastaroak euskalategi homologatu zein hitzarmenekoetan egin dituztela frogatzen badute. Aurrekontuaren kreditua Euskara Batzordearen esku geratuko da.

65. artikulua: Dirulaguntzak jasotzeko aurkeztu beharreko agiriak:

- a) Alkate jaun/andreari zuzendutako eskaria; horrekin batera hurrengo agiriak aurkeztuko dira.
- b) NANren fotokopia.
- c) Euskaltegiaren ziurtagiria; bertan honako datu hauek agertu beharko dira:
 - Egindako maila edo mailak.
 - Mailak gainditu diren ala ez.
 - Aprobetxamenduari buruzko kalifikazioa.
 - Ikastaroan zehar izandako asistentzia maila, euskaltegiak ikastaro horretan emandako orduak eta ikasleak jasotakoak zehaztuko ditu.
- d) Beste Administrazio, instituzio edo erakunde publiko edo pribaturi eskatu zaizkien dirulaguntzei buruzko, eta bere kasuan lortutakoei buruzko, zinpeko aitormena.

66. artikulua: Eskarien inprimakiak Euskera Zerbitzuko bulegoan aurkeztu beharko dira, hurrengo ikasturte hasieran. Eskaria egiten den idatzian, banketxearen izena eta kontu zenbakia eman behar izango da. Horrekin batera jabearen izena eta NAN zenbakia aurkeztu beharko dira. Eskatzailearen NAN eta Kontu zenbakiaren jabearena zenbaki bera izango da.

67. artikulua: Eskatzaileak adin txikikoak direnean, eskaria guraso edo arduradunak egingo du edo bestela hauen baimena agertu beharko da dagokion eskarian.

económicamente a la población adulta y vecina de Berriz que deseen aprender euskera, subvencionando el pago de la matrícula en el euskalategi.

Artículo 64: Beneficiarios; habitantes de Berriz que acrediten mediante la correspondiente documentación que han realizado cursos de euskera en euskaltegis homologados o concertados. El crédito presupuestario será responsabilidad de la Comisión de Euskera.

Artículo 65: Será preciso presentar los siguientes documentos:

- a) Solicitud dirigida a alcaldía, adjuntos a la misma, se presentarán los siguientes documentos;
- b) Fotocopia del DNI.
- c) Certificado del euskalategi, en el que figuren los siguientes datos:
 - El nivel o niveles realizados.
 - Si se han aprobado o no los niveles.
 - Calificación del aprovechamiento.
 - Índice de asistencia durante el curso. Especificará las horas impartidas por el Euskalategi en ese curso y las recibidas por el alumnado.
- d) Declaración jurada sobre las subvenciones solicitadas y en su caso, recibidas de otras administraciones, instituciones u organismos públicos o privados.

Artículo 66: Dónde y cómo presentar la documentación: Los impresos de solicitud se presentarán en las oficinas del Servicio de Euskera. Hay que presentar el escrito en el que se realiza la solicitud, el nombre del banco y el número de cuenta. Además hay que presentar el nombre y el DNI de titular. El DNI de solicitante y titular del número de cuenta ha de ser el mismo número.

Artículo 67: Cuando quien solicite sea menor de edad, la solicitud la realizará el padre o la madre o persona responsable o de otro modo, deberá aparecer en la solicitud su autorización expresa.

68. *artikularia:* Eskatzaileen betebeharrak hurrengo hauek izango dira;

- a) Ikasketak burutzen diren bitartean Berrizko udalerrian erroldaturik egotea.
- b) Ikastaroak irauten duen bitartean %80ko asistentzia egiaztatzea (gaixotasun baja eta bestelako baja arazoituak barne egongo lirateke).
- c) Egindako maila edo mailak gaindituak izatea, bestela, egindako ikastaroetan aprobetxamendu egokia izan duela ziurtatu beharko da.
- d) Diruz lagundu daitekeen diru kopurua Euskara Zerbitzuak erabakiko du, une bakoitzeko egoeraren arabera.
- e) Ikasleak diruz laguntzeko sistema Berrizko euskaltegian erabiltzen den bera izango da, Berrizko Udalak onartutako arauari jarraiki.
- f) Udalak dirulaguntza bakarria emango dio ikasle bakoitzari eta horretarako ikastarorik garestiena hartuko da kontuan.
- g) Barnetegietako ikasketa orduak bakarrik diruz lagunduko dira.

69. *artikularia:* Ikastaroen gainfinantziazioa eman ez dadin, euskaltegi publikoetan ikastaroak egin dituztenen eskaerak aztertuko dira (Hizkuntza Eskola Ofizialean, Udal euskaltegietan) edota lantokiko programen bidez ikasten dutenen eskaerak (IRALE, HAEEn bidezko ikastaroak...) eta bere enpresa edo instituzioaren eskutik dirulaguntza jasotzen dutenenak.

70. *artikularia:* Udako Euskal Unibertsitatean (UEUn) egindako ikastaroak ez dira diruz lagunduko.

71. *artikularia:* Berrizko gurasoei euskara ikasteko dirulaguntza bereziak eskainiko zaizkie. Guraso direla ziurtatuz gero, dirulaguntza hauek jaso ditzakete euskaltegi batean euskara ikasteagatik, beti ere aurrean aipatu diren baldintzak betetzen badira.

72. *artikularia:* Esparru desberdinetako ikasle

Artículo 68: Las obligaciones de quienes solicitan son las siguientes:

- a) Empadronamiento en el municipio de Berriz mientras realiza los estudios.
- b) Certificar una asistencia del 80% mientras dure el curso (las bajas por enfermedad o de otro tipo justificadas estarían incluidas).
- c) Haber aprobado el nivel o niveles realizados, de lo contrario será necesario acreditar el correcto aprovechamiento del curso realizado.
- d) La cantidad que se pueda aportar como subvención se decidirá en el servicio de euskera dependiendo de la situación del momento.
- e) El precio de la matrícula establecido en cada momento por el Euskaltegi de Berriz será la referencia a la hora de fijar las ayudas.
- f) El Ayuntamiento concederá una única ayuda a cada solicitante y para eso, se tomará en cuenta el curso más caro.
- g) Solo se subvencionarán las clases lectivas del barnetegi.

Artículo 69: Para evitar la sobre financiación de los cursos, se analizarán especialmente las solicitudes de quienes realicen cursos en euskaltegis públicos (Escuela Oficial de Idiomas, Euskaltegis Municipales) o a quienes estén aprendiendo mediante programas de centros de trabajo (IRALE, cursos del IVAP...) o a quienes reciban subvenciones a cargo de su empresa y otra institución.

Artículo 70: No se subvencionarán los cursos realizados en la Universidad Vasca de Verano (UEU).

Artículo 71: A los madres y padres de Berriz se les ofrecerán subvenciones especiales para aprender euskera. Acreditada la condición de padre o madre, se podrán recibir estas ayudas por aprender euskera en un euskaltegi, siempre bajo la premisa del cumplimiento de las condiciones anteriormente citadas.

Artículo 72: Siempre que se formen grupos de

taldeak eratzen badira (dendariak, jubilatuenak, ...) baldintza bereziak ezartzea aztertuko da.

73. artikulua: Udalak konpromisoa hartuko du etorkinei euskara ikas dezaten erraztasunak eta laguntzak emateko. Aukera guztien berri emango zaie harrera egiten zaien momentuan.

74. artikulua: Eskariak aurkezteko epea; urte bakoitzeko urriaren 1etik 31ra bitartean izango da.

75. artikulua: Epaimahaia Euskara Batzordeak osatuko du.

76. artikulua: Aipatutako dirulaguntza osoa jaso ahal izateko, egunean egon beharko da Udalarekin zergen ordainketari dagokionez.

77. artikulua: Etorkizunean laguntza gehiago jaso ahal izateko derrigorrezko baldintza izango da jasotako dirulaguntza zurtzea.

3. EGITURA, FUNTZIONAMENDUA ETA SEGIMENDUA

78. artikulua: Ordenantza hau modurik eraginkorrenean ezartzeko eta horren haritik, ordenantzak garatu eta Udaleko Euskararen Erabilera planaren jarraipenerako beharrezkoak diren neurriak proposatzeko, aztertzeko eta martxan jartzeko, Berrizko Udalaren organigramak ondoko egitura izango du: Euskara Zinegotzigoa, Aholku batzordea eta Euskara Zerbitzua:

a) *Euskara Zinegotzigoa:* Berrizko Udal eta udalerrian euskararen berreskurapen eta normalizazioarekin zerikusia duten gaiez arduratzen den antolakunde politikoa da. Bi zeregin nagusi izan behar ditu: batetik, Udalaren hizkuntza politikaz proposamenak egitea eta erabakiak hartzea, hitzartutako akordioak,

alumnado de ámbitos específicos (comerciantes, jubilados/as...) se estudiará establecer condiciones especiales.

Artículo 73: Inmigrantes; el Ayuntamiento adquirirá el compromiso de concederles ayudas y facilidades para el aprendizaje del euskera y se les informará de todo ello en el momento de la acogida.

Artículo 74: El plazo para la presentación de solicitudes estará abierto cada año desde el 1 al 31 de octubre.

Artículo 75: El jurado lo formará la Comisión de Euskera.

Artículo 76: Para poder recibir la totalidad de las subvenciones descritas, será condición indispensable encontrarse al día con el Ayuntamiento en cuanto al pago de impuestos.

Artículo 77: La ayuda recibida deberá ser justificada, condición indispensable para poder seguir recibiendo ayudas con posterioridad.

3. ESTRUCTURA, FUNCIONAMIENTO Y SEGUIMIENTO

Artículo 78: A fin de implantar esta ordenanza de la manera más eficaz y en consecuencia, de desarrollar las ordenanzas y proponer, analizar y poner en marcha las medidas pertinentes para su desarrollo y el seguimiento del Plan de Uso del Euskera del Ayuntamiento, el Ayuntamiento de Berriz dispondrá de la siguiente estructura: Concejalía de Euskera, Comisión Asesora y Servicio de Euskera:

a) *Concejalía de Euskera:* es el órgano político responsable de todos los temas concernientes a la recuperación y normalización del euskera en el Ayuntamiento y Municipio de Berriz. Este organismo tiene dos tareas principales: por una parte, proponer, decidir la política lingüística y dar a conocer y hacer

onartutako planak, egitasmoak aditzera eman eta betearaztea, eta, bestetik, Euskara Batzordea eta aholku batzordeak koordinatu, gidatu eta dinamizatzea.

- b) *Aholku batzordea*: Berrizen hainbat gizarte esparrutan euskararen normalizazioaren alde diharduten zenbait pertsona. Hiru hilero elkartuko dira eta egiteko nagusia izango da: Udaleko Erabilera-planaren barruan edota ordenantza hauetan ezarritakoaren arabera euskararen normalizazioari eta sustapenari dagozkion egitasmoen segimendua egitea, beharko balitz neurri zuzentzaileak proposatu eta adostuz.
- c) *Udalaren Euskara Zerbitzuak* aurreko bi batzordeen erabakien gauzatzeko, zuzentzeko, koordinatzeko eta jarraipen-lanak egingo ditu, behin dagokion organo politikoa proposatutakoari onespena emandakoan. Bestalde, Euskara Zerbitzua arduratuko da ordenantza hauen arabera funtzionatu ahal izateko egin beharko diren itzulpen, zuzenketa eta testu hobeteez (ezarritako itzulpen-politikaren arabera). Orobat, Euskara Zerbitzua Udalaren aholkularitza zerbitzu ofiziala izango da euskararen normalizazioaren inguruko gai tekniko guztietan, soziolinguistikoak zein estandarizazio-prozesuak.

4. XEDAPENAK

4.1. XEDAPEN GEHIGARRIAK

79. artikulua: Berrizko Udalak etorkizunean ematen dituen ebazpenek eta udal arlo edo organoek abian ipintzen dituzten egitasmoek araudi honetan jasotakoak errespetatu beharko dituzte.

Euskara arloko kargudun politikoa arduratuko da udal sail eta zerbitzu guztiei araudi honen indarrean jartzea jakinarazteaz, araudiaren xedapenei buruzko argibideak emateaz eta hizkuntza normalizazioa aintzat hartzearen garrantzia ulertarazteaz.

80. artikulua: Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Araudi hau indarrean jarri eta bost

cumplir los acuerdos, resoluciones y planes aprobados por el Ayuntamiento en materia de política lingüística, y por otra, coordinar, liderar y dinamizar la Comisión de Euskera y la Comisión Asesora.

- b) *Comisión Asesora*: agrupa a personas que trabajan por la normalización del euskera en el municipio. Se reunirán cada tres meses y su cometido principal es hacer el seguimiento y proponer/consensuar las medidas correctoras necesarias dentro del Plan de Uso del Euskera del Ayuntamiento y según lo establecido por estas ordenanzas.
- c) *Servicio de Euskera*: se encargará de realizar o gestionar las traducciones o correcciones necesarias para la aplicación de dichas ordenanzas y según la política de traducción establecida. Además, llevará a cabo la organización, coordinación, puesta en marcha y valoración de las medidas de política lingüística planificadas por las dos comisiones mencionadas en los campos administrativo y municipal. Asimismo, el servicio de euskera será el órgano asesor del Ayuntamiento en todas las cuestiones referidas a la normalización del euskera, tanto en su aspecto sociolingüístico como en los procesos de estandarización.

4. DISPOSICIONES

4.1. DISPOSICIONES ADICIONALES

Artículo 79: Cualquier resolución dictada por el Ayuntamiento de Berriz o cualquier programa o proyecto emprendido por los órganos o secciones municipales deberán respetar los preceptos contenidos en esta normativa.

El responsable de euskera del Ayuntamiento será el encargado de dar a conocer a todos los departamentos y servicios municipales la entrada en vigor de esta normativa, así como de informarles sobre las disposiciones de la misma y de hacerles partícipes de la importancia de la normalización lingüística.

Artículo 80: El Ayuntamiento procederá a la revisión de esta Normativa municipal de promoción y uso

urteren buruan, Udalak haren berrikuspen orokorra egingo du: emaitzak aztertu eta, beharrezkotzat joz gero, komenigarri diren aldaketak proposatuko ditu.

Dena dela, berrikuspena lehenago egin liteke, lege orokorretan zein egoera soziolinguistikoa aldaketak gertatuko balira, baita udalerriko euskararen berreskurapen eta normalizazio prozesuarentzat garrantzi handikoa izan litekeen beste edozein ziogatik ere.

4.2. XEDAPEN INDARGABETZAILEA

81. artikulua: Berez indargabetuta geratzen dira araudi honek xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen eta erabaki guztiak.

4.3. AZKEN XEDAPENA

82. artikulua: Ordenantza hau indarrean jarriko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 30 eguneko epean, Toki-Jaubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 65.2 artikulua araberan.

del euskera a los cinco años de su entrada en vigor. En ese sentido, deberá analizar sus resultados y, si procede, proponer las modificaciones pertinentes.

De todos modos, dicha revisión podrá hacerse antes si se modificaran las leyes generales o si sucedieran cambios en la situación sociolingüística del municipio, o por cualquier otro motivo que resulte de gran trascendencia para el proceso de recuperación y normalización del euskera en el municipio.

4.2. DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Artículo 81: Quedan automáticamente derogadas todas las disposiciones o acuerdos del mismo nivel o inferior a esta normativa y todas aquellas que contravengan sus preceptos.

4.3. DISPOSICIÓN FINAL

Artículo 82: La presente Ordenanza entrará en vigor a los 30 días de su publicación en el Boletín Oficial de Vizcaya, tal y como refiere el artículo 65.2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local.